



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

II. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Landa eremuetako plangintza
iraunkorra parte hartze prozesuen
bidez. Mutrikuko landa eremuan
egindako analisi integratua**

*Itziar Barinaga-Rementeria,
Iker Etxano, Oihana García,
Pedro Jose Lozano eta Itxaro Latasa*

85-92 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.02.10>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



UDALBILTZA



Landa eremuetako plangintza iraunkorra parte hartze prozesuen bidez. Mutrikuko landa eremuan egindako analisi integratua.

Barinaga-Rementeria, Itziar; Etxano, Iker; García, Oihana, Lozano, Pedro José., Latasa, Itxaro.

*Finantza Ekonomia I, Ekonomia Aplikatua I., Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
itziar.barinagarementeria@ehu.eus*

Laburpena

Landa eremuetarako lurralde antolaketa, bertako garapen plangintzekin lotua dago. Landa garapen plangintza iraunkorrak, eremu horiek eskaintzen dituzten ondasun eta funtzio anitzetan oinarritu behar dute, eta bertako eragileen interes eta ikuspegiak jaso behar dituzte. Lan honetan, garapen plangintza iraunkorrak, diziplina aniztatik eta eragile sozialen parte hartzearekin, era integralean, ebaluatzeko metodo bat aplikatzen da Mutrikuko (Gipuzkoa) landa eremuan.

Hitz gakoak: landa garapena, prozesu parte hartzaileak, irizpide anitzeko ebaluazio soziala

Abstract

Land use planning in rural areas is linked to the defined local development policies. Sustainable rural planning should be based on the diverse roles and goods provided by rural areas, being able at the same time to integrate the different expectations and interests of the local stakeholders. In this paper an evaluation method for sustainable development planning in the rural area of Mutriku (Gipuzkoa) is proposed. From a holistic viewpoint, this approach incorporates the participation of the local actors and the knowledge of different disciplines

Keywords: Rural development, participatory processes, Social multi-criteria evaluation

1. Sarrera eta motibazioa

Landa eremu bateko lurralde antolaketa, bertarako onartzen den landa garapen plangintzaren araberakoa izango da (Gómez-Orea, 2008). Landa garapen iraunkorrerako, bi aspektutan oinarritutako plangintzak behar dira. Batetik, ikuspegi integral baten beharra agertzen da, iraunkortasunak eskatzen dituen hainbat dimentsio jasotzeko gai izango den ikuspegi zabal bat. Nekazaritzaren eta landa eremuan funtzio aniztasunean oinarritutako ereduak, landa garapen iraunkorra lortzeko markoa eskaintzen dute (Aubry, et al. 2012; Casini et al., 2012; Groot, et al., 2009; Marsden eta Sonino, 2008; Morgan et al., 2010; Parra-López et al., 2008; Pinto-Correia et al., 2016; Renting et al., 2009; Rossing et al., 2007; Wilson, 2008, 2010). Funtzio aniztasunean oinarritutako landa garapen plangintzek, landa eremuan dimentsio ekonomiko, sozial eta ekologikoa islatzen dute.

Bestetik, baliabide naturalen kudeaketan, tokiko eragileen ezagutza jasotzea oinarritzakoa da, eta horretarako, erabakitze prozesuetan eragile sozialen parte hartzea (Pretty, 2003; Ribot, 2002). Landa eremuetako garapen plangintzak definitu eta garatzean, egoera konplexu horietan eraginkortasuna irabazteko, erabakiak hartzeko, tokiko parte hartze prozesuak egokiak dira (Casini et al., 2012; Shucksmith, 2010; Soliva, 2007; Tress eta Tress, 2003; Wilson, 2010; Zoppi eta Lai, 2011), beti ere maila goragoko administrazioekin elkar lanean (Franklin eta Marsden, 2015). Eragileen parte hartzeak, tokiko ezaugarri, interes eta pertzepzioak jasotzeko aukera ematen du, eta gainera, prozesua gardena izan bada, zilegitasuna ematen die hartutako erabakiei, gizartearen onarpen maila altuagoa lortuz eta gatazka arriskua murriztuz (Tress eta Tress, 2003; Zoppi eta Lai, 2010).

Bestalde, gizartea landa eremuei buruzko pertzepzio berri bat garatzen ari da, nekazaritza produktuei eta landa eremuek eskaintzen dituzten askotariko zerbitzuei balioa aitortuz (Pinto-Correia et al., 2016; Robinson, 2008; Salazar-Ordoñez eta Sayadi, 2011; Woods, 2011). Ikuspegi berri horrek, nekazaritza ustiapen txikientzat, funtzio aniztasunean oinarritutako eredu berri bat garatzeko aukera eskaintzen du, kalitatezko produktuak bidez balio gehitua eskuratuz eta landa eremuetan aisialdia edo ingurumenarekin erlazionatutako beste hainbat zerbitzu eskainiz, nekazaritza turismoa, energia berriztagarrien ekoizpena, etb. (Van der Ploeg eta Roep, 2003). Ustiapen txikien bideragarritasuna beraz, eskari berri horretara egokitzean legoke, merkatu ezberdinetara bideratutako hainbat ekoizpen

prozesu garatuz, horien artean, ekoizpen ekologikoa, kalitatezko produktuen ekoizpena, salmenta zuzena, nekazaritza turismoa edo nekazaritza produktuen eraldaketa eta merkaturatze zuzena besteak beste (Malagón, 2009). Nekazaritza funtzio anitz eredu berri bat garatu behar da, landa garapen iraunkorrerako.

2. Ikerketaren Helburuak

Ikerketa lan honek bi helburu nagusi ditu. Batetik, nekazaritzaren eta landa eremuen izaera funtzio anitza ikertu, eta landa garapen plangintza iraunkorrak lortzeko marko teorikoan sakontzea. Politika publikoak, nekazaritza aktibitatean oinarritutako ikuspegi sektorial batetik, lurralde ikuspegi oinarri duen ereduera bideratu dira azken urteetan. Lan honetan, bai nekazaritzaren eta bai landa eremuen izaera eta gaitasun funtzio anitzak aztertuz, bi ikuspegi horien arteko osagarritasuna aztertu nahi da, oreka eredu batera heltzeko.

Bigarren helburu nagusia, landa garapen plangintzak ebaluatzeko proposatutako metodologia, praktikan aplikatzea da. Honekin, metodologiaren egokitasuna frogatu eta kasu konkretu baterako, landa garapen plangintza posibleak ebaluatu eta egokienak hautatzea lortu nahi da. Hainbat diziplinetako ikertzaile talde batek, Mutrikuko (Gipuzkoa) landa eremuan burutu zuen ikerketa lana, bertako eragile sozialekin elkarlanean.

3. Ikerketaren muina

3.1. Metodologia

Landa eremuak, egitura konplexuko sistemak dira, ziurgabetasuna eta askotariko balioak agertzen dituzten sistemak. Funtzio aniztasunean oinarritutako ereduak, konplexutasun eta ziurgabetasun hori aztertzeko aukera eskaintzen dute (Groot et al., 2007; Calatrava-Requena, 2009). Funtzio aniztasunaren ebaluazioa integratuak, ikuspegi holistikoa, sistemikoa, integratua eta diziplina artekoa aplikatzea eskatzen du (Carmona-Torres et al., 2014). Sistema horiek ebaluatzeko, eta iraunkortasunak eskatzen duen dimentsio eta eskala ezberdinetako informazioa lantzeko, diziplina anitzetako metodoak behar dira, zientzia tekniko eta sozialak uztartzen dituztenak, eta erabakiak hartzeko prozesuetan eragile sozialen parte hartzea kontsideratzen dutenak (Groot et al., 2007; Manson et al., 2016; O'Farrel eta Anderson, 2010; Reig et al., 2010; Zander et al., 2008). Landa garapen plangintza iraunkorretarako, tokiko eskalako parte hartze prozesuen egokitasuna ere frogatu da hainbat ikerlantan (Shucksmith, 2010; Wilson, 2010). Europako Nekazaritza Politika Bateratuak ere, ikuspegi hori lantzen du landa garapen politikak definitzeko garaian, LEADER ekimen parte hartzaile lokalaren aplikazioaren bidez.

Ikerlan honetan Irizpide Anitzeko Ebaluazio Soziala (IAES) aplikatu da, Munda irakasleak Europar Batzordeko *Joint Research Center*-en garatutakoa (Munda, 2004, 2008) da. Irizpide Anitzeko Ebaluazioaren (IAE) familia metodologikoan kokatzen da IAES, eta erabakiak hartzeko prozesuetan laguntza tresna bat da, bereziki ingurumenaren esparruan eta iraunkortasunaren alorrean. Metodo honen bidez, eszenario edo aukera ezberdinak, landa garapenerako esanguratsuak direla adostu den irizpide batzuen arabera ebaluatzen dira.

IAESak, diziplina ezberdinak konbinatuz, ikuspegi integrala eta parte hartzailea uztartzen ditu. Horrela, baliabide naturalen kudeaketa eta lurralde antolaketa bezalako sistema konplexuetan erabakiak hartzen laguntzeko tresna egoki bilakatzen da. Iraunkortasunaren esparruan beti ere, alor jakin ezberdinetako kasu errealetan izan da aplikatua IAES, besteak beste: eskualde garapenean (Gamboa, 2006); laborantza lurren ongarriztatzean (Tarrason *et al.*, 2007); nekazaritza iraunkorrean (Siciliano, 2009); lurralde antolaketan (Pearson et al., 2010) eta natura-eremu babestuen antolamenduan (Oikonomou *et al.*, 2011). Euskal Herrian ere proposamen ezberdinak egiteko izan da erabilia IAES, bai kostalde inguruko kudeaketa integralerako Urdaibain (Garmendia *et al.*, 2010) zein Gipuzkoako Natura 2000 esparru baten antolaketa eta kudeaketarako (Etxano *et al.*, 2015).

Hurrengo puntuetan, Mutrikuko landa eremuan IAESren aplikatuz garatutako ebaluazio prozesua eta lortutako emaitzak azalduko dira. Mutrikuko Udala HAPOa lantzen ari zela baliatuz, elkarlanean garatu zen ebaluazio prozesua.

3.2. Ebaluazio prozesua. Mutrikuko landa garapen plangintzen ebaluazioa

3.2.1. Analisi instituzionala eta parte-hartze prozesua

Mutriku, Debabarrena eskualdean, Gipuzkoako mendebaldeko muturrean dagoen udalerrri txikia da, 2800 hektarea ingurukoa. Zonalde industrializatu batean dagoen arren, kokaleku geografikoa, orografia zaila eta haran zabalik ez izatean, landa izaera mantendu du, industria garapen eskasarekin. Basoek Mutrikuko lur ez-hirigarrien hiru laurden baino gehiago okupatzen dute, azken urteetan

espezie aloktonoen ugaritze nabarmenarekin. Izarraitz, Andutz eta Arno eta mendiguneak aipatu daitezke, azken hau bertako artadien balioa dela eta Kontserbazio Berezko Eremu (KBE) izendatua izanez.

Parte-hartze prozesuari dagokionez, eragile sozial eta ikerlarien arteko informazio trukaketa etengabea izan zen prozesu osoan, teknika ezberdinak erabiliz (elkarrizketak, *focus groupak* edo taldeko tailerra, etb.). Hauek dira kronologikoki ordenatuta partaidetza prozesuan mugarri izandako ekimenak:

1. Taula. Partaidetza prozesuaren mugarriak.

Ebaluazio prozesuko fasea	Partaidetza prozesuko mugarria	Deskripzio laburra	Data
1 Fasea. Analisi instituzionala.	Mutrikuko Udalari proiektuaren aurkezpena	Lan akademikoa eta HAPOko landa eremurako baliagarria den lana elkarrekin adostu eta antolatzen da	2014ko urtarrilaren 16a
Fase guztietan zehar	Aktoreei sakoneko elkarrizketak	Elkarrizketak prozesu osoan zehar eman dira, fase guztietan, 1-3 faseetan gehienak.	2014ko otsaila – 2015 maiatza
2 Fasea. Ebaluazio irizpideak hautatu.	1. Tailerra: Irizpideen tailerra	Eragile sozialekin elkarlanean, landa garapenerako garrantzitsuak diren gaiak landu ziren, irizpideak definitu ahal izateko	2014ko ekainaren 30a
3 Fasea. Alternatibak sortu.	2. Tailerra: Alternatiben tailerra	Aurreko tailerretik lortutako irizpideak kontrastatu ziren, eta garapen alternatiba ezberdinak landu	2015eko urtarrilaren 15a
6 Fasea. Emaizten aurkezpena	Emaizten aurkezpena	Aktoreei emaitzen berri eman eta beraiekin kontrastatu	2016ko uztaila

Analisi instituzionala eta partaidetza prozesuan, Mutrikuko landa garapen plangintzen inguruan gizarte eragileen ikuspegi eta interes askotarikoak azaleratu dira. Eragile sozialen posizioak ezberdinak, eta kasu batzuetan kontrakoak ere badiren arren, badira zenbait aspektu eztabaida sortzen dutenak eta orokorrean, kezkaragari sumatzen direnak: (i) nekazaritzaren abandonua; (ii) diru-laguntzen menpeko nekazaritza; (iii) luraren eskasia eta eskualdatzeko arazoak; (iv) konifera basoen ugaritasuna; eta (v) landa-eremuetako populazioa mantentzea.

3.2.2. Ebaluazio teknikoa

Atal honetan, analisi instituzionala eta partaidetza prozesuaren bidez identifikatutako landa garapen plangintza ezberdinak eta horietako lurren erabilerak azaltzen dira. Hiru agertoki orokor planteatu dira: gaur egungo dinamiken jarraipena, nekazaritza eredu berrien sustatzea eta bertako espezieen basogintzaren sustatzea. Hiru agertoki orokor horietatik, bost alternatiba konkretu definitu dira:

1. Alternatiba: Gaur egungo dinamiken jarraipena (*Business as usual*)
2. Agertokia: Nekazaritza eredu berrien sustatzea.

Bigarren agertokia, bi alternatibetan gauzatzen da:

- 2.a. Alternatiba: Nekazaritza eredu berrien *sustatze aktiboa*.
- 2.b. Alternatiba: Nekazaritza eredu berrien *sustatze trinkoa*.
3. Agertokia: Nekazaritza berriaren eta bertako basoaren sustatzea.

Arnoko KBE eta gainerako basoak (Arnoko KBetik kanpora daudenak baino udalerrriaren barruan) independenteki lantzen dira, bi alternatiba proposatuz:

- 3.a. Alternatiba: Nekazaritza berriaren *sustatze aktiboa* eta bertako basoa Arnoko KBEn
- 3.b. Alternatiba: Nekazaritza berriaren *sustatze aktiboa* eta bertako basoaren sustatzea Arnoko KBEn eta kanpoan.

Bai analisi instituzionalean bai partaidetza prozesuan zehar, gizarte eragileen interes eta desioak zein diren azaleratu zen. Interes, zio eta espektatiba horiek, finean, sei ebaluazio irizpidea definitzen

dituzte: biodibertsitatea, paisaia, nekazaritza jardueren errentak, kostu publikoa, bertako produktuen kontsumoa, eta lurrari errotzea.

Ondoren, alternatiba bakoitzarentzat irizpide ezberdinen balioztapena kalkulatu zen. Prozesu honen bidez lortutako balioztapen guztiak Irizpide Anitzeko Eragin-matrizeak (IAEM) baten jasotzen dira (2. taula).

2. Taula. Irizpide Anitzeko Eragin-matrizea.

DIMENTSIOAK	IRIZPIDE AK	Adierazle mota	Norabidea	ALTERNATIBAK				
				A 1.	A 2.a.	A 2.b.	A 3.a.	A 3.b.
				Gaur egungo dinamiken jarraipena	Nekazaritza sustatze aktiboa	Nekazaritza sustatze trinkoa	Nek. sustatze aktiboa eta bertako basoa Arnoko KBEn	Nek. sustatze aktiboa eta bertako basoa Arnoko KBEn eta kanpoan
Ekologia	Biodibertsitatea	Indizea	Max	426.628	426.680	427.120	440.176	443.677
	Paisaia	Indizea	Max	62.814	62.998	63.100	67.295	68.410
Ekonomikoa	Nekazal errentak	Euro	Max	367.028€	459.295€	461.120€	440.515€	435.643€
	Kostu publikoa	Euro	Min	379.429€	416.259€	426.565€	561.801€	599.444€
Soziala	Bertako produktuen kontsumoa	Kualitat.	Max	Nahiko txarra	Nahiko ona	Ona	Nahiko ona	Nahiko ona
	Lurrari errotzea	Kualitat.	Max	Ertaina	Altua	Altua	Baxua	Baxua

IAEMen biltzen den informazioa algoritmo matematiko bat aplikatuz ebatziko da NAIADE agregazio metodoaren bidez. Alternatibak binaka alderatzen dira irizpide bakoitzarekiko, egokiagoak diren edo ez zehaztuz. Ondoren, alternatiba guztiak erabili irizpideekiko egokitasunaren arabera sailkatzen ditu agregazio metodo honek.

3.2.3. Ebaluazio soziala: gatazka arriskua aurreikusten

Ebaluazio sozialak aktoreen posizioa alternatiba bakoitzarekiko azaltzen du, eta baita aktoreen artean eman daitezkeen koalizioak alternatiben aurrean ere. Koalizioen dendogramatik, ondorioztatzen den antzekotasun eta gatazka analisisian, aktore talde bakoitzarentzat alternatiba egokiena zein den azaltzeaz gain, onartzen ez dituzten edo onarpen maila baxuen duten alternatibak ere ikus daitezke. Hala, ebaluazio soziala ere NAIADE erabiliz burutu dugu. Ebaluazio sozialaren egituraketa ekitate-matrizearen (3. taula) bidez egiten da. Ekitate-matrizea analisi instituzionalean eta parte-hartze prozesuan zehar jasotako informazioan oinarritzen da.

3. Taula. Ekitate-matrizea.

Aktore taldeak	AKTOREAK	ALTERNATIBAK				
		A.1.	A.2.a	A.2.b	A.3.a	A.3.b
Instituzionalak	Gipuzkoako Aldundia – Ikuspegi ekologista	3	6	6	7	9
	Gipuzkoako Aldundia – Ikuspegi ekonomizista	5	6	6	3	1
	Mutrikuko Udala	4	8	9	8	8
Teknikoak	Debemen, Lurralde Bulegoa, Geoparkea, HAZI	4	7	8	8	8
	EHNE Sindikatua	4	7	8	7	5
	ENBA Sindikatua	6	7	7	6	5
Ekonomikoa	Baserritar tradizionalak eta hauen elkarteak	4	6	6	3	2
	Baserritar berritzaileak	4	8	9	8	8

Sozialak	Talde ekologistak	2	6	6	7	9
	Aisialdirako taldeak	4	6	6	8	8

Oharra: adostasun maila 1etik 9rako eskala baten bidez azaltzen da, 1 batere ados ez egotetik, 9 zeharo ados egoterainoko tartean.

3.3. Emaitzak

3.3.1. Ebaluazio teknikoa

IAEMan jasotako informazioaren gehiketaren ondorio, bi sailkapen edo indize lortuko dira, alternatibak sailkapen bat lortuko da, beraien egokitasunaren arabera ordenatuz.

Alternatiben sailkapena
Lehenak: A2.b eta A3.b
Bigarrenak: A2.a eta A3.a
Hirugarrena: A1

Mutrikuko landa eremurako, 2.b. alternatiba,, nekazaritza eredu berrien sustatze trinkoa, eta 3.b. alternatiba, nekazaritza sustatze aktiboa eta bertako basoa Arnoko KBEn eta kanpoan, izan dira alternatiba egokienak. Bigarren mailan 2.a. alternatiba, nekazaritzaren sustatze aktiboa, eta 3.a. alternatiba, nekazaritza sustatze aktiboa eta bertako basoa Arnoko KBEn azaltzen dira. Azkenik, eta desegokiena bezala azaltzen dena 1. alternatiba dugu, gaur egungo dinamiken jarraipenaren aldekoa.

Beraz, egokitasun maila altuena azaltzen duten bi alternatibetan landa-lurren erabileretan aldaketa bat gertatzea proposatzen da. Batetik, nekazaritza eredu berrien potentziazio trinkoa eta bestetik, bertako espezieen basogintzaren sustatze trinkoa dira eredu egokienak. Hala ere, burutu ebaluazioaren arabera ezin daiteke esan nekazaritzaren sustatze trinkoa ala bertako basogintzaren sustatze trinkoa ote den egokiena, biak sailkapenean maila berean baitaude, eta halako kasuetan ezin da alternatiba bat bestea baino egokiagoa dela ziurtatu (Joint Research Centre, 1996; Benetto *et al.*, 2008). Hori da hain zuzen ere gure kasuan gertatzen den egoera, non 2.b. eta 3.b. alternatibak diren egokienak baina ezin dugun ziurtatu bietatik egokiena zein den.

Irizpide batzuen arabera 2.b. alternatiba 3.b. baino egokiagoa eta alderantziz, beste irizpide batzuen arabera 3.b. alternatiba 2.b. baino egokiagoa delako da. 4. taulan atzeman daiteke 2.b. alternatibak zein irizpideetan 3.b. alternatibak baino balorazio hobetoak dituen eta baita alderantziz ere.

4. Taula. 2.b eta 3.b. alternatiben arteko *trade-offa*

2.b. alternatibaren alde	3.b. alternatibaren alde
↑↑ Lurrari errotzea	↑↑↑ Biodibertsitatea
↑ Kostu publikoa (hazkuntza txikia)	↑↑ Paisaia
	↓ Lurrari errotzea
	↑↑↑ Kostu publikoa (hazkuntza handia)

Ebaluazio teknikoa osatzeko, ereduaren sendotasuna bermatzeko sentsibilitate analisia egin da. Sentsibilitate analisiaren bidez, sistema errealeko ziurgabetasun islatzen da ereduaren hasierako aldagai edo parametroetan aldaketak eginez. Froga honetan emaitzak ez badira ere nabarmenean aldatzen ereduaren sendoa dela eta errealtateko ziurgabetasuna jasateko gai dela bermatzen da. Kasu honetan, bai konpentsazio eta bai sinesgarritasun indizeetan aldaketak eginez frogatu da ereduaren sendoa dela.

3.3.2. Ebaluazio soziala

Analisi sozialaren emaitzek, hiru aktore koalizio nagusi azaltzen ditu. Batetik, bi sindikatuek osatzen duten koalizioarentzat, 2.b. alternatibak azaltzen du onarpen maila altuena, eta 1. alternatibak baxuena. Bestetik, GFako ikuspegi ekonomizista duen alderdia eta baserritar tradizionalak osatzen dutenarentzat, 2.a. alternatiba da egokiena, eta 3.b. alternatiba desegokiena. Azkenik, GFako ikuspegi ekologista, Mutrikuko udala, baserritar berritzaileak, talde ekologistak, aisialdirako taldeak eta garapenean ari diren eragile teknikoek osatzen duten koalizioarentzat, 3.b. alternatiba da egokiena eta 1. alternatiba desegokiena. Gainera, koalizio nagusia den horrentzat 2.a. eta 1. alternatibak betaturik daude; eta esan bezala, 2.a. alternatiba da hain zuzen ere egokiena da GFako ikuspegi ekonomizista duen alderdiaren eta baserritar tradizionalen koalizioarentzat, eta bigarren egokiena sindikatuen koalizioarentzat ere.

5. Taula. Aktore koalizioak.

Lehentasun-maila		Aktore koalizioak		
		EHNE Sindikatura ENBA Sindikatura	Gipuzkoako Aldundia – Ikuspegi ekonomizista Baserritar tradizionalak eta hauen elkarteak	Gipuzkoako Aldundia - Ikuspegi ekologista Mutrikuko Udala Debemen, Lurralde Bulegoa, Geoparkea, HAZI Baserritar berritzaileak Talde ekologistak Aisialdirako taldeak
Lehentasun-maila	Handiena	A 2.b	A 2.a	A 3.b
		A 2.a	A 2.b	A 3.a
		A 3.a	A 1	A 2.b
		A 3.b	A 3.a	A 2.a
	Baxuena	A 1	A 3.b	A 1

4. Ondorioak

Ikerlan honetan lortu den lehen ondorioa, landa garapen iraunkorrerako plangintzak ebaluatzeko, funtzio aniztasunean oinarritutako ereduak egokiak direla da. Funtzio aniztasunean oinarritutako analisiaren bidez, eremu horiek eskaintzen dituzten hainbat ondasun eta zerbitzu aztertze markoa lortzen da. Era berean, askotariko zerbitzu eta ondasun horien ebaluazioak, diziplina anitzeko ebaluazio metodoen beharra agerian uzten du. Irizpide Anitzeko Ebaluazio Soziala, funtzio aniztasunean oinarritutako landa garapen plangintzak ebaluatzeko metodo egokia da beraz.

Bigarren ondorioa, analisi instituzionaletik lortu da, eta landa garapen plangintzei buruz gizarte eragileek duten askotariko ikuspegiaren arteko aldea da. Ikuspegi eta interes ezberdin horien ondorio, zenbait garapen eredu azaltzen duten gatazka arriskua ere ondorioztatu da.

Ebaluazio teknikoren arabera, hiru ondorio atera daitezke. Lehena, alternatibarik desegokiena egungo dinamikekin jarraitzea dela. Nekazaritzaren etengabeko gainbeherak, landa eremuetan eragin negatiboa du hainbat ikuspuntutatik.

Bigarrenez, alternatibarik egokienak, 2.b. eta 3.b. alternatibak, nekazaritza eta basogintza eredu berri baten sustatze trinkoa planteatzen dute. 2.b. alternatibak, nekazaritza ekologikoa, kalitatezko produktuak eta kalitatezko abeltzaintza eredu baten alde egiten du. Alternatiba honek, produktu eta zerbitzu berriak garatzearekin batera, merkaturatze kate berriak lantzea ere eskatuko luke. 3.b. alternatibak, nekazaritza eredu berri horren sustatze aktiboa, eta bertako espezieetan oinarritutako basogintza eredu bat planteatzen du.

Hirugarren ondorioa, ebaluazio sozialarekin erlazionatuta dago. Teknikoki egokienak diren bi alternatibetako batek, 3.b. alternatibak, sustatze ekologiko gorenak islatzen duenak, gatazka arrisku altua agertzen du. Izan ere, Gipuzkoan, azken urteetan basogintza ereduak eztabaida eta liskar ugari sortu ditu, bai eragile sozialen artean, bai Foru Aldundiko alderdi politiko ezberdinen artean ere. Beraz, nahiz eta teknikoki egokitasun maila gorenak agertu, sozialki gatazka arrisku altua du.

5. Etorkizunerako planteatutako norabidea

Funtzio aniztasunean oinarritutako landa garapen plangintzen analisisan, funtzio horien arteko oreka lortzea da landu beharreko gaitetako bat. Nekazaritzaren funtzio aniztasunean, maiz sortzen den arazoetako bat funtzio ezberdinen arteko batera ezintasuna edo talka da. Arazo hori, iraunkortasunaren dimentsio ezberdinekin erlazionatutako arazo bat da, eta iraunkortasun sendoaren paradigman kokatuz gero, konpentsa ezinak diren hainbat dimentsioen arteko oreka bilatzea da erronka.

6. Bibliografia

- Aubry, C., Ramamonjisoa, J., Dabat, M.H., Rakotoarisoa, J., Rakotondraibe, J. eta Rabehariosa, L. (2012). Urban agriculture and land use in cities: An approach with the multi-functionality and sustainability concepts in the case of Antananarivo (Madagascar), *Land Use Policy*, 29, 429-439.
- Benetto, E., Dujet, C., y Rousseaux, P. (2008). Integrating fuzzy multicriteria analysis and uncertainty evaluation in life cycle assessment. *Environmental Modelling & Software*, 23, 1461-1467.
- Calatrava Requena, J. (2009). La multifuncionalidad de la agricultura: Implicaciones para el análisis de los sistemas agrarios, En Sayadi, S. eta Parra-López, C. (eds.) *Multifuncionalidad agraria, desarrollo rural y políticas públicas: Nuevos desafíos para la agricultura*, Junta de Andalucía, Instituto de Investigación y Formación Agraria y Pesquera. Sevilla.

- Carmona-Torres, C., Parra-López, C., Hinojosa-Rodríguez, A. eta Sayadi, S. (2014). Farm-level multifunctionality associated with farming techniques in olive growing: An integrate modeling approach, *Agricultural Systems*, 127, 97-114.
- Casini, L., Contini, C. eta Romano, C. (2012). Paths to developing multifunctional agriculture: insights for rural development policies, *International Journal of Agricultural Resources, Governance and Ecology*, 9(3/4), 185-203.
- Etxano, I.; Garmendia, E.; Pascual, U.; Hoyos, D.; Díez, M.A.; Cadiñanos, J.A. eta Lozano, P.J. (2015): A participatory integrated assessment approach for Natura 2000 network sites. *Environment and Planning C: Government and Policy*, 33: 1207-1232.
- Franklin, A. eta Marsden, T. (2015). (Dis)connected communities and sustainable place-making, *Local Environmental*, 20(8), 940-956.
- Gamboa, G. (2006). Social multi-criteria evaluation of different development scenarios of the Aysén region, Chile. *Ecological Economics*, 59, 157-170.
- Gamboa, G., eta Munda, G. (2007). The problem of windfarm location: A social multi-criteria evaluation framework. *Energy Policy*, 35, 1564-1583.
- Garmendia, E., Gamboa, G., Franco, J., Garmendia, J.M., Liria, P., y Olazabal, M. (2010). Social multi-criteria evaluation as a decision support tool for integrated coastal zone management. *Ocean & Coastal Management*, 53, 385-403.
- Gómez-Orea, D. (2008). El desarrollo rural. Una reflexión desde la ordenación y el desarrollo territorial. *Agrónomos: Organo Profesional de los Ingenieros Agrónomos*, 36, 17-30.
- Groot, J., Rossing, W., Jellema, A., Stobbelaar, D., Renting, H. eta Van Ittersum, M. (2007). Exploring multi-scale trade-offs between nature conservation, agricultural profits and landscape quality. A methodology to support discussion on land-use perspectives, *Agriculture, Ecosystems and Environment*, 120, 58-69.
- Groot, J., Rossing, Tichit, M., Turpin, N., Jellema, A., Baudry, J., Verburg, P., Doyen, L. eta van de Ven, G. (2009). On the contribution of modelling to multifunctional agricultura: Learning from comparison, *Journal of Environmental Management*, 90, 147-160.
- Joint Research Centre (1996). *NAIADE. Manual and tutorial*. Version 1.0 ENG. Ispa, Italia: Joint Research Centre, Comisión Europea.
- Malagón, E. (2009). *Multifuncionalidad e instrumentos de política agraria: el caso de la política agroambiental en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Tesis Doctoral, Hegoa, UPV/EHU
- Manson, S.M., Jordan, N., Nelson, K.C. eta Brummel, R. (2016). Modeling the effect of social networks on adoption of multifunctional agricultura, *Environmental Modelling & Software*, 75, 388-401.
- Marsden, T. eta Sonnino, R. (2008). Rural development and the regional state: Denying multifunctional agricultura in the UK. *Journal of Rural Studies*, 24, 422-431.
- Morgan, S., Marsden, T., Miele, M. eta Morley, A. (2010). Agricultural multifunctionality and farmers' entrepreneurial skills: A study of Tuscan and Welsh farmers, *Journal of Rural Studies*, 26, 116-129.
- Munda, G. (2004). Social Multi-criteria Evaluation (SMCE): Methodological foundations and operacional consequences. *European Journal of Operacional Research*, 158, 662-677.
- Munda, G. (2008). *Social Multi-criteria Evaluation for Sustainable Economy*. Verlag, Berlin, Heiderlberg. Springer.
- O'Farrell, P. eta Anderson, P. (2010). Sustainable multifunctional landscapes: a review to implementation, *Current Opinion in Environmental Sustainability*, 2, 59-65.
- Oikonomou, V., Dimitrakopoulos, P.G., eta Troumbis, A.Y. (2011). Incorporating ecosystem functions concept in environmental planning and decision making by means of multi-criteria evaluation. The case-study of Kalloni, Lesbos, Greece. *Environmental Management*, 47, 77-92.
- Ortiz-Miranda, D., Moragues-Faus, A. eta Arnalte-Alegre, E. (2013). *Agriculture in Mediterranean Europe. Between old and new paradigms. Research in Rural Sociology and Development*, Emerald, UK.
- Parra-López, C., Groot, J., Carmona-Torres, C. eta Rossing, W. (2008). Integrating public demands into model-based design for multifunctional agricultura: An application to intensive Dutch dairy landscapes, *Ecological Economics*, 67, 538-551.

- Pearson, L.J., Park, S., Harman, B., eta Heyenga, S. (2010). Sustainable land use scenario framework: Framework and outcomes from peri-urban South-East Queensland, Australia. *Landscape and Urban Planning*, 96, 88-97.
- Pinto-Correia, T., Guiomar, N., Guerra, C. eta Carvalho-Ribeiro, S. (2016). Assessing the ability of rural areas to fulfil multiple societal demands, *Land Use Policy*, 53, 89-96.
- Pretty, J. (2003). Social capital and the collective management of resources. *Science*, 302, 1912-1914.
- Renting, H.; Rossing, W.A.H.; Groot, J.C.J.; Van der Ploeg, J.D.; Laurent, C.; Perraud, D.; Stobbelaar, D.J. eta Van Ittersum, M.K. (2009). Exploring multifunctional agriculture. A review of conceptual approaches and prospects for an integrative transitional framework. *Journal of Environmental Management*, 90, 112-123.
- Ribot, J.C. (2002). *Democratic decentralization of natural resources: institutionalizing popular participation*. World Resources Institute, Washintong D.C
- Robinson, G. (2008). *Sustainable Rural Systems: Sustainable Agriculture and Rural Communities*. Ashgate, Aldershot
- Rossing, W.A.H., Zander, P., Josien, E., Groot, J.C.J., Meyer, B.C. eta Knierim, A. (2007). Integrative modeling approaches for analysis of impact of multifunctional agriculture: A review for France, Germany and The Netherlands. *Agricultural Ecosystems and Environment*, 120, 41-57.
- Salazar-Ordoñez, M. eta Sayadi, S. (2011). Environmental Care in Agriculture: A Social Perspective, *Journal of Agricultural and Environmental Ethics*, 24, 243-258.
- Shucksmith, M. (2010). Disintegrated rural development? Neo-endogeneous rural development, planning and place-shaping in diffused power context. *Sociologia Ruralis*, 50(1), 1-14.
- Siciliano, G. (2009). Social multicriteria evaluation of farming practices in the presence of soil degradation. A case study in Southern Tuscany, Italy. *Environmental Development Sustainable*, 11, 1107-1133.
- Soliva, R. (2007). Landscape stories: using ideal type narrative as a heuristic device in rural studies, *Journal of Rural Studies*, 23(1), 62-74.
- Tarrasón, D., Ortiz, O., y Alcañiz, J.M. (2007). A multi-criteria evaluation of organic amendments used to transform an unproductive shrubland into a Mediterranean dehes. *Journal of Environmental Management*, 82, 446-456.
- Tress, B. eta Tress, G. (2003). Scenario visualisation for participatory landscape planning: a study from Denmark, *Landscape and Urban Planning*, 64, 161-178.
- Van der Ploeg, J.D., eta Roep, D. (2003). Multifunctionality and rural development: the actual situation in Europe, In Van Huylbroeck, G. and Durand, G., (eds.) *Multifunctional agriculture. A new paradigm for European agriculture and rural development*, Aldershot, UK, Ashgate.
- Wilson, G.A. (2008). From “weak” to “strong” multifunctionality: Conceptualising farm-level multifunctional transitional pathways. *Journal of Rural Studies*, 24, 367-383.
- Wilson, G.A. (2010). *Multifunctional “quality” and rural community resilience*, School of Geography, University of Plymouth, Plymouth, Devon.
- Zander, P., Groot, J.C., Josien, E., Kapinski, I., Knierim, A., Meyer, B.C., Madureira, L., Rambonilaza, M. eta Rossing, W.A. (2008). Farm models and economic valuation in the context of multifunctionality: a review of approaches from France, Germany, The Netherlands and Portugal, *International Journal of Agricultural Resources, Governance and Ecology*, 7, 339-360.
- Zoppi, C. eta Lai, S. (2011). Assessment of the regional landscape plan of Sardinia (Italy): a participatory-action-research case study type, *Land Use Policy*, 27(3), 690-705.